

# "PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO EN VASCUENCE  
DIPUTACION FORAL DE NAVARRA



Coordinador para el Suplemento  
en Euskara  
MARCELINO GARDE

XVII'gn. urtea  
155'gn. zenbakia

Iruña - 1983 - Agorrilla

Franc. conc.  
N.º clas. 34/60

Director en func. de la Inst.  
Príncipe de Viana  
J. JOSE GRAU

## Euskalerrria oñazez

Euskalerrri'ko oñaze ta nekeak ez dira txikiak azken-urte auetan. Eta orain beste kalte aundiagoak, Agorrille'ko euriteak eta uroldeak direla-ta.

Luzaroan aaztuko ez den samintasun garratza utzi dute Euskalerrria'an Agorrilla'ren 25, 26 ta 27 egunetako urolde izugarriek. Kantabria'n ere izan da kalterik, baiña gureen ondoan, gutxi.

Naparroa, Araba ta Gipuzkoa urpean egonak ba'dira, erri batzuei dagokienez beintzat, zer esango dugu Bizkaia'ri buruz? Eta Lapurdi'n, gauzak berdin...


Bermeo'n bereziki ta gero denen gaiñetik Bilbao'n izan dira kalte ta ondamenik aundienak, izugarriak eta ikusi gabe sinistu eziñekoak.

Eta audienea, 60 lagunen biziak eraman dituela.

Etxeak erorita, soro ta lurrak ondaturik baserritarrak, dendak eta elizak ere ur zikiñez erreta, lantokiak alperrik galduta, kaleak ibai egiñik... Nola jasoko du burua Euskalerrriak? Itxaropengarri da egun oietako auzo-lana.

Zer esan dezakegu ez-bear izugarri onen aurrean? Izar-artera ta illargira igota dabillen gizakia, txiki ta eziñean gertatu da izadiaren aserre-aldiak jo duenean. Guztia badezakela uste ba'du ere gizakiak, onelako gertaera indartsuen aurrean, aul eta ezereza gertatzen da bere jakinduria ta guzti ere.

Euskalerrria, gure errialde txiki au, leen eziñean zebillen: lantokiak ixten, jende asko ta asko la-



Izadiaren indarrak agertzen direnean, orduan gizakiak ezagutzen du bere aulkaria.  
(RUIZ DE AZUA argazkia)

nik gabe, gosea ta bearrak indar artzen... Eta orra orain, leen baiño ondatuago. Burua altxa eziñean zebillen gure Euskalerrriak, au da au zigorra artu duena burutik beera!

Eta oraindik ere or jarraitzen dute areago ondatzen gure arteko zenbait «salbatzaille» burugabek.

Beti osasungarri ta onuragarri baldin ba'da elkartasuna edo elkar-laguntza, onelako ez-bear

izugarrietan da bearrezkoena. Eta, zorionean, egiazko elkartasuna agertu dute alde askotatik: España'ko errialdeak eta Europa'ko zenbait erri ere laguntzaille agertu dira. Baiña elkartasunik aundiena, Euskalerrri'an bertan piztu da uroldeak izan direlarik.

Diruz eta lanez, oparo lagundu dute goiko ta beekoek, bai Jaurlaritzak eta Aldundiek, baiña baita erriko jende xeeak ere. Naparroa'ko adibide bi anitz txaloga-riak dira: 37 pertsonen erri batean 32.500 pezta, ta 235 lagunekoa 53.000.

Esan bear izanen duguia: zoriontsu eldu izan zaigun ez-bearra, anaitasunaren bidea erakutsi digulako?

Orduan, egia ote izanen da bearrak elkartzen gaituela?

Dena dela, «elkarturik gabe, indarrak ez da». Eta ain orren bearra zorigaitzoko Euskalerrri ontan!

# EUSKAL

# ERRIKO LEIOA

## UROLDEAREN KALTEAK NAPARROA'N



Bidasoa'ko alde bietan, kalte aundiak; Lapurdi'n, berriz, 10 gizakien biziak ere. (MENA argazk.)

Kalte ta ondaketa aundiak ekarri zituen urak, bere neurritik ateratzean; Agorrilla'ren azken-egunetako uroldeak urpean zapaldu du Euskalerrria.

Araba'n, Bizkaia'n, Gipuzkoa'n eta Lapurdi'n zenbaiten biziak ere eraman zituenez uroldeak, eriotz oietara begiratu du jendeak eta aazturik utzi dute Naparroa'n gertatua.

Bidasoa ibaiaren alde bietako erriak or daude kalte galanten ondorenak jaso eziñik: Bera, Lesaka, Sunbilla, Zugarramurdi, Urdazubi eta gaiñerakoak. Beste aldetik, Leitza ta Goizueta, Sakana ta Burunda ere bai. Lurralde auetan sekulu izan ez diren aiñako urak ekarri zituen urolde kaltegarriak.

Dirutan zenbat milloiren kalteak izan diren neurtzeko, goizegi da oraindik. Bakoitzak bere kalteak aaztu ezin

ba'ditu ere, mundu guztia Bizkai aldera begira dabil, an izan bai-dira aundienak. Baiña Naparroa'n gertatu diren kalte aundien adierazpena, ortxe dago argazkietan: soroak, bideak, etxeak, dendak, argi-etxeak, lantokiak, errotak edo eiarak, ur-bildegia e.a.

Azkenean, izadiaren indarrak agintzen du. Gizakiok egindako lanak, bikaiñak dira askotan, baiña izadiaren indarrez ondatuta gelditzen dira, oraingoan bezala.

Gertaera mingarri orren aurrean, auxe pentsatu bear: gizakia, bai emakumea ta bai gizonezkoa, aul eta txiki direla... Ez gerala, uste dugun bezain aundi. Eta etengabean eta aspertu gabe, berriz asi bearra izaten dugula gure lanetan. Orixe da «bizitzako jokuaeren arriskua»: bizitza, bestek

## DIPUTAZIOAREN ERABAKIAK

### OYAN-BIDEAK

**ERRO**-Ibarrean ere, Loizu-Urniza eta Loizu-Larraingoa'rako oyan-bideak bereala egiñen dira iru milloi zazpireun amabi milla ta zortzireun irurogeita amasei peztetan.

**ULTZAMA**'ko Udal edo Aintamentuari eman diote ia milloi erdia, agindutako laguntzaren lenengoa, Ataketa eta Zazpitarrieta'rako oyan-bideak ordaintzeko.

### OYAN-EPAITZEAK

Erri batzuei zugaitz-epaitzeko baimena eman die Diputazioak:

**ALZATSU**'ko Udalar, «Alzania», «San Pedro Basabea» ta «Labarga» mendietako 2.154 zugaitz saltzeko (2.546 metro) 16.712.387 peztaren trukez.

**EZKAROTZ**'eko Aintamentuari, 1.150 pago ta ler edo piñu zugaitz (1.029 metro), 5.315.370 peztetan saltzeko.

**ALBIASU**'ko Batzarrari, 347 aritz, pago ta gaztañondo zugaitz (339 metro), 4.233.600 peztaren trukean saltzeko.

**URRAUL-GOITI, ADOAIN**'go Batzarrari, 38.031 ler edo piñu zugaitz (4.247 metro), 2.887.960 peztetan saltzeko.

**IRAGI**'ko Batzarrari, 480 pago zugaitz (574 metro), 5.794.968 peztetan saltzeko.

## Euskerazaintza

Illaren azkenengo larunbatez egin oi ditu Euskerazaintza'k bere batzarrak eta lan-saioak.

Dagonill'ean, ordea, egun larriak ziran azken aldera Euskalerrri osoan eta batzartzerik ez zuan izan iñola ere.

Euskerazain geienentzat, benetan eziñezkoa zan batzar-tokira joatea, bideak itxita bai-zeuden. Bestalde, Euskalerrri'an ain jatorrak diran auzo-lana ta elkartasuna oiñarriztat arturik, bakoitzak bere tokian lagundu bear zuan.

Erri bakoitzean izan zan larritasunik aski ta oiñazerik ere bai. Oiñazeetan eta lanetan, lagundu egin bear izan zuten, beraz. Izan ere, «bizitzea da lenengo, ta gero gaiñerako asmakizunak», antziñako esaerak dionez.

# Madrid'en ere «LOAPA»'ri ez

Bai izen arrotza dela LOAPA itz ori! Abere ez- ezagun eta beldurgarri baten izena dela dirudi. Abere izugarri ta ankerra bai, baiña ez da ain ez- ezaguna: ainbeste aldiz agertu bai-da alde guztie- tan.

Emen eta Kurdistan'en eta alde guztietan ere berdin, erriak eta kulturak, izkuntzak eta askata- suna ta bizia iresten dituen «*zerbait*» aundi orren izena da. Bizia iresten du bai, baiña ez berea: besteren bizia iresten du.

Badira bi milla urte, «*zerbait*» orren aurpegia ongi ezagutzen dugula euskaldunok: erromata- rrena... godoena... mauri edo arabiarrena... monar- kiena... liberalismoarena... diktaduren aurpegia.

Eta beste batzuen demokrazi-jarrerak zerbait eskeintzen zuenean; au da, gure buru-jabetza izan zenaren izpi bat, zatitxo bat bakarrik eskeintzen zigutenean, or agertu zen LOAPA ori dena zapal- tzer. Bai bada: gure itzalak berak ere bildurra ematen bai-die.

Aizter edo guraitze aundiak zekazkien LOAPA'k: eskeintzak, itzak, itxaropenak, eskubideak... dena ebakitzeko ta mozteko guraitzeak.

Madrid'en oretu zuten LOAPA izeneko lege ori, baiña gu gabe: ez Andaluzia, ez Galizia, ez Katalu- nia ta ez Euskalerrria lankide artu gabe naaspildu zuten beren artean. Guretat zena, gu gabe oretu zuten, eta gero guk dena irestea nai zuten.

Ez genuela nai, gure aorako egokia ez zela, gure errientzat kaltegarri zela esan genien. Baiña alperrik: indarrean irentsi-erazi nai ziguten.

«*Tribunal Constitucional*» deritzaion Epaitegiak bete-betean arrazoi eman digu eztabaida sakon ortan. Baietz, Konstituzioak erabakirik dauzkan

gaiak, moztu ta zirtzildu egiten dituela LOAPA orrek. Arau edo atalik garrantzizkoenetan, Konsti- tuzioaren aurka dagoela... Arau edo atal nagusi oiek kendu bearrak daudela LOAPA'tik.

Legea, beti osoko zerbait da; legeak lege izango ba'da, osotasun bat bear du. Eta LOAPA ere lege bat denez, zati nagusiak Konstituziotik kanpora baldin ba'dauzka, lege osoa dago kanpora ta Konstituzioaren aurka.

«*Erriaren Babesle*» deitzen dioten Ruiz Jimenez jaunak onela aitortu du: «*Legeak osotasun bat bear du. Eta LOAPA'k, Epaitegi nagusi orren erabakia- ren ondoren, ez dauka osotasunik; beraz ez da lege ta ez dago ezartzerik*». (Noiz izango ote da «*ERRIEN Babesle*» jatorrik).

Baiña denen gaiñetik aurrera jarraitu nai dute Gobernuak eta bere lagunek. Eta ateraldi buruga- beak esan dituzte arto aski: «*Kendu bearrekoak kenduta, gaiñerako guztia aurrera eramango dugu, «Cortes»'etan onartu ondoren*».

Arrokeria ta itxumena adierazten dute jarrera oiek, Euskalerrri'tik gauzak ikusita. Arto ta itxu ja- rraituz, euskaldunekin eta beste abertzaleekin ez dute iñolako artu-emanik eta elkar-izketarik nai: dena beraiek antolatu ta guri indarrean ezarri nai digute.

LOAPA'ren sorrera, asieratik izan zen galgarria: UCD ta PSOE partiduak, biak ere zentralista batu- zale dira, eta errialde guztiak berdintasunezko ba- tasunean lotu nai izan zituzten. Biak bakarrik el- kartu ziren, beste errialdeak baztertera utzirik eta orrela jarraitu nai dute oraindik ere. Beti arri berean egingo dute oztopo.

**ASTEKARI**

emandako doai aundizat arturik, esker onez zaindu bear dugu.

Izan ere, garrantzizkoena ez bai-da, gauza batzuk egitea. Ez. Geuron bu- ruak landu ta osotzea da gure lanik aundiena. Eta ortan dago gure aundi- tasuna.

## «PAKEAREN ALDEKO IBILLALDIA» DEBEKATURIK URSS'EN ETA POLONIA'N

«Pakearen aldeko Ibillaldia Was- hington'dik Moscou'ra», deritzaion ekiñaldia, 1981'gn. urtean sortu zen Ipar-Ameriketa'ko Estatu Elkartuetan.

Ipar-Ameriketa'ko ta Sartalde Ale- mania'ko, bietatik 15 lagun ziren, 19-39 urte bitartekoak. Ibilli ta ibilli, eldu zi- ren Txekoslovakia'ra. Igaro zuten na- zio ori, baiña Polonia'n sartzetik ez dute izan: debeku zorrotza! Eta askoz gutxiago sartu aal izango dira URSS itxian.

Pake-zale sutsu auen eskaerak, auek dira: atomozko izkillu edo arma guz-

tiak gelditu-eraztea berririk geiago egin gabe; armagintzarako dauzkaten diruak, gizarteko bear larriei laguntzen erabilli ditzatela; azkenik, Sortalde ta Sartalde, alderdi bien artean askatasu- nez ibilli aal izatea guztientzat.

Ez dira eskaera txarrak. Polonia'ko ta URSS'eko paradisueta ez dute pa- kearen bearrik, baiña asko saiatuko dira, beste nazioetan pake-zaleen ixti- lluak xaxatzen. Beren «pakea» bakarrik nai dute.

Gure artean ere erren asko dabilta okerka: alderdi bakarreko gaitzak sa- latzen dituzten bitartean, oso ederki babesten dituzte bestaldekoak.

## JERUSALEN'EN 9 AUR ZAURITURIK

Leku guztietako antzera, Israel'en ere ez da guztia gerran ibiltzea. An ere aurrak beren jolasetan ibiltzen dira, noski. Onela, Jerusalem'go jolas-toki batean jostailuetan zebiltzalarik, bira- bira aundi baten ardatza bere orpotik atera egin zen eta aurrak aidean ba- natu.

Burdin artean guztiak iltzea ere ez zen arritzekoa. Baiña ez. An joan ziren aidean egaka batzuk, baiña ildakorik iñor ez. Bakarra zauritu zen eta bera ere ez asko. Ortarako gertututik ote dauzkate aurtxoak, miñik artu gabe irauteko prest eta trebaturik? Obe, ala izatea.

## ZUBEROA'KO «PASTUAL» BAT IKUSTERIK EZ OLITE'N

Aurten ere izan dira Erriberri'n «*Festivales de Navarra 83*» deituak, eta aien artean euskal-antzerki bat, Zuberoa'ko «*Pastoral*» bat ikusteko zoria ia-ia izan genuen. Baiña... ia ez da ogi.

Egiñaalik aski egin ba'zuten ere eratzailleek, alperrik izan ziren. Eus- kerazko euskal-antzerki au, benetan ERRIKOA da, erritik sortua ta jatorra. Baiña Erriberri'ko Jaialdietan ez zioten tokirik utzi.

Bee-Naparroa'ko Osses errian an- tzeztu dute antzerki ori, euskeraz Ur- tzaiz deituriko errian alegia. Orta orri beraren izen bi, Erriberri'ko ingu- ruetan euskaldun askok dituzten abi- zenak ain zuzen: Osas eta Urzaiz.

PRINCIPE DE VIANA 3

«Pastoral» onen egillea, Kazenabe Aita da, Zuberoa'n, Basaburia'ko Santagrazi'n jaioa. Auñamendi'etako zuberotar baten gërtaerak agertzen dira antzerkian: Pette izenekoa, bere aurrekoak bizi izan zireneko erri ta lurraldetik irten bearrean gertatu zen. Zergatik? Arrotz batzuek erosi zituzten Pette gizagajoa bizi zeneko saillak eta lurrak.

Eta ortatik datozkion arazoak, bai Pette'ri ta bai Euskalerria'ri, aundiak dira: atzerritarrek beren izkuntza ta beren kultura arrotzak dakazkite, eta orren ondorioz, euskaldunak, berenak utzi bearrean eta arrotzak artzera beartuta gertatzen dira.

Aintzezlarien artean bat, Pierre Errekart dugu, azken-aldi auetako abeslari euskaldunik onenetakoa. Eta «Pastoral» onen azken-abestia, Zuberoa'ko Salgize'n (Sauguis) apaiz den Roger Iriart lapurtarrarena da.

Egunen batean ikusiko dugu euskal-kultura Erriberri'n ere. Bai, «*bizitzari euskaldunek emandako erantzuna bai-da euskal-kultura*», Barandiaran jakintsuak dionez. Bitartean, mundu guziko kulturak ekarriko dizkigute; kulturak dira, —zin ukatu—, baiña arrotzak dira, ez dira gureak.

## EUSKERA BEARREZKOA IKASKETAN


Gazteiz'ko Gobernu edo Euzko Jaurilaritzak agindu duenez, goi-mailako ikasketan ezik, beste mailla guzitan, gure izkuntza ikastea bear-bearezkoa izango da emendik aurrera.

Etxenike, Euzko Gobernuko Eziketa Saillean buru denak adierazi du, gure erri guziak euskalduntzeko, Euskera ikasi bearra izango dutela, ikastoletan bezala, erri-eskola guzietan ere. Ikastaroaren bukaeran, egindako ikasketak neurtzean, Euskara ere aintzat artua izango da.

Geiegi beartzea, ez al da kaltegarri izango? Gauz bat da, gure Euskera bizirik eutsi nai izatea, baiñan kontuz geiegikeriarekin... Jendea zapuztu ez dedin, legun-legun, Euskera maite izatera ekarri bearrean, ez al dugu atzeratu, oztu ta uxatuko?

Gogoan euki ditzagun Mitxelena maixuari, irlandar beste maixu batek esandako itz auek:

**«Noizpait Euzkadi'n agintaritzaz lortzen ba'duzue, ezazutela Euskera indarrez naitanaiezkoa egin; bizitzarako bearezkoa egitea naikoa duzue».**



# Aita Santua Lurdes'en



**Ama Birjiña agertu zeneko arkaitz-zuloan otoitz-aldi luzea egin zuen**  
(EFE argazk.)

Andre Maria Ama Birjiña'ren Zeruratze edo Jasokunde egun aundia, Lurdes'en ospatu zuen Aita Santuak. Itzaldiak egiten eta otoitzean bete zituen iru egun eta ez bera bakarrik: 300.000 kristau fededun zituen bere inguruan eta oien arteko 30.000 lagun, gazteak ziren, ain zuzen ere, gazte-bilkura aundi bat egitera joanak, ikur-itx auek gidaritzat artuta: «*BIZITZETIKO JOKUAREN ARRISKIPEAN*».

Giza-biotzetzat gidari aundi bat da Aita Santua, ez iñolako indarkeriaz eta bai espirituaren argiz. Eta orregatik jarraitzen diote beste iñori baiño jende geiagok, fededunek lenengo, baiña baita fededun ez diren gogo oneko askok ere.

Orrelá ulertu ta artu ditu gauzak Frantzia'k. Eta orregatik eman dizkio mundu osoari, delako «*mundovisión*» orren bidez eman ere, Aita Santuaren irudiak, sinismenez beteriko alizkizunak, mintzaldi sakon eta sutsuak, ibilliak eta jendearekiko artu-emanak. Eta Frantzia'ko ikustirradi edo RTVF orrekin batera, Itali'koak, Beljika'koak, Alemania'koak, Ingalterra'koak eta Ameriketa'koek ere zabaldu dituzte irudi ta itzaldi guztiak.

Baiña arrogarria! Beste nazioek zabaldu dituzten bitartean, batz bestek katolikorik geiena daukan España'k, beste bein ere kale egin du: Jasokunde eguneko Meza Nagusia besterik ez zigun eman.

Lurdes'tik 15 km. bidera dagoan Tarbes'ko egazkin-zekaian jetxi zenean, an agertu zitzaion Mitterrand Presidentea obi-etorria egitera, eta ala esan zuen: «*Aita Santua rengan, gizadi osoaren kondairari eragin sakona eman dion erakunde den Elizari egiten diot ongi-etorria; eta bizitzari argi egiten dioten elburu aundien apostolu egiñik dabillen gizon oni (Aita Santuari, alegia) ere ongi-etorria egiten diot, pakea, zuzenbidea ta elkartasuna zabaltzen bai-dabil*».

Eta Lurdes'a etorri den lenengo Aita Santuak:

«*Lurdes'a etorri naiz, baiña ez nola-nai; peregrinazioz etorri naiz, emengo Santutegian grazi berezia dagoelako. Eta emendik sortzen den mezua edo erakutsia, argia da, garbia ta oiñarrizkoa, eta eun urtez mundu osora zabaltzen dena. Santutegiak maite dituen munduak, emen Lurdes'en jarrita dauzka bere begiak... Emen otoitz egiten du jendeak, otoitz asko ta pozik; emen Jainkoarekin adiskidetzen da jendea, Euskaristia ospatzen da; emen begirune aundia zaie beartsuei ta gaixoei. Grazi-toki berezia da au*».

Arratseko «*Argien Ibillaldia*» amaitzean, igande gauean otoitz sutua egin zuen Aita Santuak munduko beartsu ta zapalduen alde: gerrako ondandamiak daramazkitenen alde, beren errietatik atera bearrean gertatu direnen alde, errigabe asko oiñazez betezen dituen terrorismoak zauritu ta ildakoen alde; baituta daudenen eta izkutatuaren alde, zuzenbide jatorraren ziurtasunik gabe epaituen eta zigortuen alde...

Jasokunde egunean eta batez ere 30.000 gazteei, dei bizia ta sarkorra egin zien, sinismen-bizitzaren arriskua kementsu joja dezaten, eta neketsu ta zailla den bidean jarrai dezaten itxaropenean eta maitasunean.

Arratsaldean, Ama Birjiña agertu zeneko arkaitz-zuloan, otoitz-aldi luzea egin zuen, gaixo-talde ugariak inguratuz. Bedeinkatu ta itxaropenezko etzak esan zizkien gaixo ta elbarriei.

Eta agur egin zien 300.000 lagunei, Jasokunde-egun au Lurdes'en ospatu izana, beti bere biotzean eramango duela esanez.

# Eguzkia: alde onak eta txarrak (III)

MEDIKU ZAARRA

## AZALEKO «CANCER» EDO MIN-BIZIAREN SORTZEA

Luzaroan eta urteetan zear eguzkipean lanean ibiltzen direnei, batez ere nekazari, arrobi-langille ta bide-konpontzallei sortzen zaie azaleko min-bizia, oiek bait dira, eguzkitan lanean uda ta negu ibilli oi direnak.

Aurpegian eta lepoan jotzen die langille oiei eguzkiak, eta bi leku oietan azaltzen da min-bizia. Antziñako urteetatik jakiña da gertaera ori, ta azterketak diotenez, eguzkiaren «ultravioleta» erraiñuak dira, gure azaleko «célula» edo soñ-kizkiñak bere onetik aterata min-bizira bultzatzen dituztenak.

Arrisku ontaz ez degu geiegi kezkatu ta bildurtu bear, ba, alde batetik, eguzkitan denbora luzeetan ibilli bearra izaten da gaitz bildurgarri ori sortzeko; eta beste aldetik, azaleko gaitz ori, ez da ain zalla sendatzen, gure soñeko beste min-biziak bezala, errex xamar menderatzen den oietako bat bait da.

Gañera, kontuan euki bear dugu alegia, gaitz ori agertu bezain laster, gure begien aurrean agertzen dela, ta bereala jabetzen garela zer datorren; ori nabarmendu bezain laster; norberak, bere senideak eta lagun artekoak ere ikusi egiten bait dute, igerriaz, egunero ikusten ez den zerbait sortzen ari dela.

Aurpegi ta lepo-zokoan sortzen dira geienetan, urratu edo zauri txiki baten antzera, eta koxkor baten antzera besteetan; ta eguna joan eta eguna etorri, naiz ta «pomada» edo ukendu askorekin sayatu sendatu naiean, sendatu gabe gelditzen, da; ta orduan agertzen dira sendagillengana, beren egoera azalduz.

Orrelako gertaeratan, egin bear diren ekintzak, lebai-len egitekoak izaten dira, bai operazio edo ebakuntza sakon baten bidez edo ta, radioterapia edo X erraiñuak ezarrita, gaitzaren gain-giñean.

Azaleko min-bizia bilduagoa, zabaldu gabea izaten delako, gure gorputzeko beste min-biziak bezain zaila sendatzeko ez da izaten. Adibidez, «estómago» edo urdallean, aur tokian, muñetan, gibelean eta beste nun-naiko min-biziak, ez bait dira izaten azaleko min-bizik bezala zabaldu gabekoak; bere inguru gu-



zian, odol-zañak aurkitzen direlako, oso izaten da, odol-zain oietako bat zulatzea, min-biziaren lana orixe izaten bait da, ta jakiña da, bein gaitza odol-zain baten barrura sartuz gero, laster aurkituko da gorputz guzian barrena era bat zabaldua. Orrengatik, ebakuntza edo operazio bat egin arren, andik puska batera or agertzen da min-bizia, bai gibelean, bai birketan edo nun-nai.

Orrelako arrixkurik gabekoak izaten dira soin-azaleko min-biziak, ta ebakuntza baten ondoren, gaitza batere zabadu gabe, era bat sentatuta gelditzen da ia beti. Beraz, min-bizi guzien artean, ariñenak eta errexen sendatzen direnak, gure soin-azaleko min-biziak ditugu.

Lurraren gañean egon oi den kontaminazio edo aide-kirastuak ere badu zer ikusia gure soin-azalean sortu oi den min-biziarekin.

Badakigu, lengo txanda batean esan degunez, lurra, gure munduaren goi mailla batean, ozono izenarekin ezagutzen dugun aide-tarte aundi bat aurkitzen dela; ozono-tarte orrek, asko ta asko arintzen du eguzkiaren jo-aldia, ta ozono-sail ori gure gañean, zerupe ortan aurkituko ez ba'litz, eguzkiaren indarrak, bere berotasunak eta, kixkali arrayo egin-da geldituko giñakela agerian dago; ta gizonekin batera, abere, landare ta bizidun guziak ere.

Gauzak orrela, aitortu bearrean aurkitzen gera alegia, mundu onen Jaungoiko-egilleak obeto ezin bezala antolatu zituela gauz guziak, bere neurri egoki batean gizonaren onerako. Ta gizonak ba'gera, baita era aitortu bear dugu bide batez, gure lurbira guzia, iñungo loturarik gabe, aidean aurkitze bera ere, karraxika bezala ari zaigula adierazten, egille berezi bat, egon bear duela nai-ta-nai-ez; urteak joan eta urteak etorri, udarak eta neguak, gauak eta egunak, erloju edo ordulari onena baño zuzenago, millaka urteak igaro arren, sekulan ez atzeratu ta ez aurreratu gabe dabillen ordularia. Ta orrelako ta ainbeste ekintza arrigarri ez direla berekasa, beregisa, iñork zuzendu gabe egiten agerian dago; beraz, nola gelditu aitortu gabe? Ta utzitako ariari elduz, esan dezagun aide kirastutaz zerbait; alegia egia dela, gure inguruan egon oi den kontaminazio edo aide kirastuak, badutela zer ikusia, gure soin-azalean sortzen diren min-biziek; onen erraiñu kaltegarriak indartu egiten bait dira aide kirastuan zear igarotakoan; ara ba emen ere beste arrazoi indartsua, kontaminazio edo kiraste oien aurka al den guzia egiteko; lantegietako ke zikin eta kaltegarri, neurri estu-estuak ezartzeko.




Luzaroan eguzkipean ibiltzen direnei sortzen zaie azaleko min-bizia

# Europa, bai; baiña, nolakoa? GARDE'TAR M.

Orain 15/20 urte direla, gure lurralde ontan amets jator bat zutenentzat, dena debekaturik zegoen: egia, zuzenbidea, askatasuna eskatzen zituenentzat, ate guztiak ertsita; gezurrezko muga igaro ta Europa'ko aizea artu nai ba'zuen norbaitek, «Pasaportea» ukatu ta kito.

Liburu jatorrak beste izkuntzetatik gaztelerara itzultzea ere debekutzen ziguten. Adibidez «L'Europe des Ethnies» edo «Errien Europa» deitua, Guy Heraud abertzale okzitanoak idatzia.



Eta gizon argi orrekin mintzatzeko joan nintzen, orduko batean, mugaz beste aldera; joan ere, mendiz noski, beti bezala. Eta «paperik gabe», beti bezala ere!


Benafarroa'ko Donapaleu'n gure mintzaldi luzea. Nolako gizon sutsua Guy Herauk jauna! An ustuzuen bere biotz aundia...

«Aundiek egindako Europa ez dut gogozko; beste bat nai dut, *Errien Europa*, baiña ez *Estaduen Europa*.

Aundien indarrez eratua da Europa ori; antziñako errialde txikiak irentsi dituen da; or ez dago elkartasunik, diruaren eta indarraren batasuna bakarrik baizik.

Errialde edo nazio txikiak eutsi bear diote beren kulturari, beren izkuntza bereiziarri, ez besteengandik alde egiteko, baiña ber-bera izaiteko bakoitza. Erri txikiak elkartu bear izango dute *aundien* aurrean. Europa'k BAT izan bear du, baiña gogoz elkartua ta ez-desberdintasun guztien gainean eratu; bestela, itogarria da».

Egi-egia esaten zuen orduan Guy Heraud adiskideak. Orduan ere bururatu zitzaidan ura: «Zertarako iru E (E'tik, E'bidez, E'rat), bi E aski direnean? Erdikoa, sobera, noski. Badira Euskaldunak European sartuta; guk, berriz, alakoan bezala, gezurrezko muga pasatzeko, ez dugu paperik; er-



Nor genuen «Excmo. Sr. Ministro» debekatzaillea, Fraga Iribarne Jauna baizik?

diko E'k gorderik dizkigu-ta.

Ordutik ona gutxi aurreratu gera, baiña aurreratu; irakur ezazu orrialde ontantxe «Comunidad Europea» aldizkariatik euskeratu duguna.

Oraingoz, oraindik, asmoak, iritziak eta elburu zuzenagoen azia erin bear ditugu. «Aundien» aurrean ia betiko zailtasuna. Baiña garaia elduko zaigunean, billatuko ditugu uzta ugariak, guztientzat aberasgarriak.

## GUTXIK ERABILLITAKO IZKUNTZEI BULTZADA

«Gutxik erabillitako Izkuntzen aldeko Batzorde Europarra», Dublin'en batzartu zen. Eta Europa'ko errialde txikien izkuntzak eta kulturak zaintzeko bidean, «Errialde txikien Eskubideen Aitorpena» eratzeko lanak egin zituen.

Gaetano Arfe jaunak Europa'ko Parlamentuari aurkeztu zion txostenari esker sortu zen. Eta lanari asiera emateko, 100.000 milloi ECU diralakoak eskeiñi zizkion Parlamentu orrek.

Errialde txikietan mintzaten diren izkuntzak, 20 dira Europa Elkartuaren barnean eta guztira 15-20 milloi lagun mintzaten direnak. Eta izkuntzaz batera, errialde bakoitzak bere kultura berezia du. Izkuntza oien artean, auek dira ezagunenak: Eskozia'koa, Gales'koa, Bretaña'koa, Okzitania'koa, Korzega'koa, Euskera e.a.

Europa'ko Izkuntzen Batzordeko ta «Gael Linn» Elkarteko O'Riagan irlandarrak onela aitortu zuen: «Gutxik erabillitako izkuntzak dituzten erriak orain batzartu dirà lenengo aldiz Europa barnean beintzat, beren izkuntzen eskubideak elkaturik zaintzeko».

Europa'ko Izkuntzen Batzorde ori eratzekoan, errialde bakoitzeko bat izango da bazkide. Arfe'ren Txostena aurrera ateratzen saiatuko dira elkaturik; au da, errialde txikietako izkuntzen eskubideak bai eziketari eta bai albiste-bideetan zainduak izan daitezen eskatuko diete Europa'ko Estaduei. Eta gauza auek guztiak lortzen saiatuko dira: eskoletan



eta Unibersidadeetan izkuntza oiek irakastea ta erabiltzea, eta izkuntza oiek Agintaritzak eta Epai-karitzak ere erabiltzea. Azkenik, Europa Elkartuak bere elkarte-dirutik laguntza eman dezaiela.

Europa'ko Parlamentuan ordezkari den John Hume irlandarrak onela dio: «Errialde txiki bakoitzari indar emateak eta kulturen ez-berdintasunak, egia esan, ez dakarte Europa Elkartuarentzat ino-lako arriskurik. Bestalde, gazteek beren jatorria ta erroak ezagutu nai dituztela ere, gauza garbia da. Onela, gero-ta geiago dira Europa'n beren izkuntza ikastea ta erabiltzea nai dutenak».

(«Comunidad Europea» 187'gn. zenbakitik euskeratua)

# **Etxeberria eta Txapel**

«errotari» ta «ikazkin»



«DONOSTIA'KO II'GN.

**BERTSOLARI-EGUNEAN»**

Aundi-aundia izan zen bertsolari-jaialdi artan, gai-  
emaille *Basarri* zelarik, gure *Txapel*'i esan zion:

BASARRI,–Aizu, *Txapel*, zu «ikazkiña» izango zera.

Eta era berean esan: Eta zuretzat, Etxeberri, badet albiste  
bat ere; zu «errotari» egiten zaitut.

Albiste ori entzun bezain laster, asi zen Etxeberria  
kantari:

*ETXEB.*

Nere lanari ekin beaiot  
albiste auxe artzian.  
Nere denboran ez da izandu  
mingaiña oso atzian;  
lenago ere oiturik nago  
ni jardun-erantzunian.  
Errotaria naiz ni izatez;  
egite au dut bizian:  
aiskide onek zaku-iriña  
diru gabe eraman zian.

*TXAP.*

Ni ikazkintza juzgatu naute;  
zu, berriz, errotaria.  
Gusto ba'zazu entzun zaidazu,  
esango dizut egia.  
Tristurarikan zuk ez daukazu.  
Ain zaude gizon alaia!  
Txintxotasuna utzita zaude  
tranpa-zale ugaria...  
Kontzientzia garbituzeko  
badadukazu premia.

*ETXEB.*

Ni errotari-langintzan naiz-ta  
*Txapel* ori ikazkiña;  
alare ongi izaten beti  
saiatzen naiz alegiña.  
Ordaindu gabe eraman zidan,  
lengo batian, iriña.  
Pagatuzeko konturik ez du,  
aitzaki ugari baiña:  
ez zendukean, ez, ori egingo,  
zintzoa izan ba'ziña.

*TXAP.*

Zure aldian, beti izan naiz  
oso biotzez biguña;  
lagun guziri ondo lagutzen  
egiten det alegiña.  
Zure errotako jenero dana  
neretzat ez da berdiña;  
ongilleari gaizki egiteko  
beti izan dezu griña:  
iriñan partez, jartzen didazu  
edozer gauza zikiña.

*ETXEB.*

Nere errotan ez da sartutzen  
garian partez, artua;  
*Txapel*'en gezur ori daukagu,  
lotsik gabe ausartua.  
Gaizki zuk esan, ez jakin eta  
gezurra zuk agertua!  
Gaizki esanak biltzera berriz,  
zugandik naiz beartua;  
edo bestela, zure ots ona  
ez dezu ipiñi edertua.

*TXAP.*

Errota ontako nagusi jauna  
nola zeraden zerorri,  
irin zatarrak saltzen dizkazu  
deskuidatuzten danari.  
Len ere nago ikasia-ta,  
ez zait zurea komeni;  
pixuantzako ona dala-ta,  
zikiña bota iriñari!  
Zazpigarrengo Mandamentuak  
ez du agintzen gauz ori.

*ETXEB.*

Iriña eraman nere etxetik;  
ordaiñez, ekarri ikatza!  
Orren kopeta! Lotsagabea!  
Azala, berriz, du latza...  
Bere agora nik aurreragi  
ez det sartuko beatza.  
Langintz arlote batean dabil;  
ezin izan aberatsa.  
Pagoa eskatu, gaztaiña ekarri...  
Bide okerretik zabilta!

*TXAP.*

Au ere esan bear nizuke  
–ortara ari naiz bertsu-  
nere langintzan arituzten naiz,  
satisfazio osuan,  
bere aldera itzegiten det,  
bera badaukat goguan.  
Gauz onengatik inbusteria  
lenago're bazenduan;  
itzak ederrak mingañez;  
baña, kontzientzia auzoan!

*ETXEB.*

Zaku-ikatza ekartzekua,  
aspaldi dan luzaroan,  
–itza eman, bai– gure etxera  
ez da jun oraindanoan!  
Uste al dezu, ai, ez dedala  
nik edukiko gogoan?  
Artutzen det, bai, buruan garbi  
zeñek zer eraman duan.  
Gure errota txarra baldin ba,  
nai dezunengana joan.

*TXAP.*

Zer kontatua pranko badaukat  
explikatu al ba'nitza;  
Etxeberria, entzun biazu  
orain dijoazun itza:  
ez nuben uste zendubenikan  
orren jenio zipotza...  
Gaizki egiten daramakizu  
oraindanoako bizitza;  
zuzendu zaitetz, fede onean,  
biotzetik ba'zabilta.

*ETXEB.*

Iriñ ederrik egitekotan,  
nik bueltatzen det arria;  
zintzo ta zuzen daukat etxea,  
oso ederki jarria.  
Ikazkin batek galdu bear nau,  
kiebra jo det orain ia...  
Irin-zakuaz etxea ustuz;  
eraman al dun guzia...  
Eta ala're, itzegiteko  
onek badu ausardia!

*TXAP.*

Bein bear zun da onek oraintxe  
gezur galanta esan du;  
len egindako deskuido danak  
emen nai ditu zuzendu.  
Onek esanda itz sakonikan  
nik ez det entzun izandu:  
besten pekatu konfesatu, ta  
zeure danak almazendu.  
Garbi zenduke kontzientzia,  
len ongi egin ba'zendu!

# «Txapel»<sup>2</sup>: diktadurakoan zigortua izan zen

Errezil'en jaio zen *Txapel*, «Antxiturbi Goikoa» deritzan baserrian. Eusebio Eizmendi zen bere egiazko izena, baiña *Txapel* esan oi zitzaion beti, eta *Txapel* esaten zion berak ere bere buruari. Eusebio'ren aitari ere *Txapel* deitu oi zitzaion.

Sei senide izan zituen; bera, 1893'gn. urtean jaio zen. Eta baserri batean orrenbeste jendearentzat bizi biderik ez bait dago, otargintza ikasi Eusebio *Txapel*'ek, eta Azpeiti'ra jetxi zen.

Joxepaiñaxi Lazkano'rekin ez-konduta, Azpeiti'n bizi izan zen beti, otargintzan eta bertso-kantaketan. Eta Azpeiti'n il zen 1969'gn. urtean, minbiziak jota, amabost eguneko gaixo-aldi labur baten ondorean.

Uste gabean joan zen. «Osasunez gañezka zebillela zirudin. Arri begiratuta, iñork ez zizkion emango 75 urte; gazteago zirudin ondotoxoz», idatzi zuen *Basarri*'k 1969-V-18 «Zeruko Argian».

Sendi ederra azi zuen *Txapel*'ek. Bere semeetako bat, Mikel, apaiza izan zen, eta oraindik il berria da.

Ain zuzen, Mikel'en eriotzak eraginda atera dugu gaur bertsolarien txoko ontara bere aita *Txapel*, beste bertsolari zaarrago batzuek geroagoko utzi-ta.

*Txapel*'ek gizon bezala izan zituen doaiak goratzean, bere zintzotasuna, seriotasuna, agertu bear digu leenik. Itz zakarren, min eman zezakean izkeraren, gautiro txarren, eta geiegizko jan-edanen etsaia izan zen gaztetatik. Langille trebe bezain, kristau zuzena; santu bat bezala joan zen mundu ontatik bestera. Onela abestu aal izan zuen Gorrotxategi bertsolariak *Txapel*'en illetakoan:

**Mundu ontako eginkizunak  
zuk ondo dituzu bete;  
Jaungoikoaren onean illa,  
or gauz txarrak ez da bate.  
Zuk ereindako bertso sakonak  
lore berriak dakarte;  
zure izena ez da galduko  
euskera bizi dan arte.**

Zintzotasunaren atzetik, bere alaitasuna aipatu bearrean aurkitzen gera. Umore oneko gizona izan zen beti; irriparez, izkera go-



«Txapel» errezildarra Azpeiti'n bizi izan zen beti, otargintzan eta bertso-kantaketan. (AUSPOA argazk.)

xoz, bertso alaiez, denentzat atsegin eta poz-emaille, leku eta aldi guztietan agertzen zena. Orregatik, eta mundu guziari laguntzeko noiznai gerturik azaltzen zelako, oso maitea izan zen *Txapel*. Adiskide asko izan zuen, bertsolarien artean batez ere, eta bereziki bertsolari gazteen artean, guraso bat bezala izan bait zen auentzat.

Orixe gogoratu zuen, jende guztiaren aurrean Azpeiti'ko elizan, Lizaso bertsolariak. Gazte-gazterik gelditu zen umezurtz Lizaso; Eusebio *Txapel*'ek bete zuen mutikoaren alboan aitak utzitako utsunea.

**Oso gazterik gelditu nintzan  
Jainkoak aita eramanik,  
eta Eusebio urbildu zitzaidan,  
gizon jator bat izanik.  
Bere aginduk bete gabe nik  
ezin, ba, utzi iñondik;  
sekulan ez nun pentsatu izan  
neronen alte ez zanik.**

Bertso ori entzun bezain laster, *Txapel*, «bertsolari guztien aita

*izan zela*», eta ez Lizaso'rena bakarrik, abestu zuen Lazkano'k:

**Eusebio zan gure aita ta  
gure lagunik aundiña,  
amaika aldiz, gizon bezela,  
gazteari itzegiña.  
Gaur gauza batek ematen dit nei  
biotz barrenean miña,  
jai-aldi eder au Eusebio'ri  
il baño len ez egiña.**

*Txapel*'eri Azpeiti'ko erriak eskeintzen zion omenaldi artan ziren, Lapurdi'tik eta Benafarroa'tik etorriak, bi bertsolari aundi: *Mattin* eta *Xalbador*. Ez zuten auek *Txapel* ezagutu, eta jendeak ari zion maitasuna ikustean, ain gizon maitagarri ura ez ezagutuak ematen zien pena abestu zuten bi bertso ederrretan, *Xalbador*'ek aurrena:

***Txapel* zan ori ez zan agertu  
nere begien argira;  
ni emen asi baño lenago  
egin bait zun erretira.  
Baiñan egun, nola dagoen  
zerutik gurl begira,  
lagun guztioz gida gaitzala  
bera dagoen tokira.**

Oso izkera txukun eta goxoan pentsamentu bera erabili zuen *Mattin*'ek ere:

Gaur Azpeiti'ra etorria naiz  
ni ere *Txapel* goguan;  
ta pentsaketan egondua naiz  
nere lagunon onduan.  
Etzagutzeko zorlonikan  
nik ez nun izan munduan;  
bainan desira nik, egun batez,  
ezagutzea zeruan.

Bertsolari bezala bat-baterako bertsolaria izan genduen *Txapel*, eta bere bertsogintzak garrantzi edo inportantzi izan zuen Euskal-erri'an, bertsolari zaarren eta berrien arteko zubia izan bait zen bera, *Zepai* txaloarekin batera: *Txirrita* eta *Basarri* arteko zubia, esate baterako.

Diktaturaren denbora zipotz zakarrean, *Txapelek* eta *Zepai*'k gorde zuten pizturik bertsolaritza-zako su sagaratu. Bien artean zenbat poz-aldi gozo ez zioten eman euskaldun saminduen biotzei! Entzun *Basarri*'ri:

*Txapel* da *Zepai*, izen bi oiek  
ni lillurutzen ninduten;  
triste zeudenak alaitzen zuek  
ederki zendekizuten.  
Gu gaztetxoak giñan artean,  
ta biok sasoi zenduten,  
amaika bider gozatua naiz,  
zuen bertsoak entzuten.

*Txapel* eta *Zepai* ezkon-anaiak ziren biak, gizon bikaiñak, kristau fededun zintzoak, egiazlo apostoluak, euskeraren eta Euskal-erria'ren maitale sutuak! Euskera il-zorian zegoala, kezkatu eta oñazez ibilli ziren beti, eta baita negarrez bein edo bein.

Euskeraren egoerak zenbait adiñeko miña ematen zien jakiteko, bada gertakizun pitxi bat. Bertsolari-pesta batean zegoen bein *Txapel*, eta pesta ura zuzentzen zuek, *Txapel*'i bere «bizimoduaz» bertso batzuek botatzeko agindu zion. Asi zen *Txapel*; baiña, bere «bizimoduaz» aztuta, Euskararen «bizimodu» larrira igaro zen uste gabe, bere bizitza baiño askoz maiteagoa bait zuen Euskararen bizitza.

Euskal-erria ta Euskera ain maite zituelako, diktaturakoan zigortua izan zen *Txapel*. Euskaldun gais-toek, beren erria —«beren kaiola»— maite ez zuten euskaldunek salatu izan zen, gaiñera, zigortuta. Euskal-erria desegin nai zuten euskaldun zipotz aiek, Gernika'ko Arbola ondatu nai zuten, Euskararen aurka amorraturik borrokan asi zirenean. Ori dena zekan buruan *Txapel*'ek, bertso auek abesteko eskatu ziotenean; entzun eiozu berari:

Bertso batzuek eskatze'ituzu  
nere «bizimodu» gai;  
ez dakit naizen iñola ere  
lan orretarako ni lain.  
Mutl gaztia izan nintzan bai,  
ustez jator bezin lirain;  
urtien mende ementxe nago,  
gutziz atonduta orain.

Bizi guztian burutapen bat  
izan det danen gañetik:  
gure Euskera salbatu naia  
iltzen zegoen unetik.

Orrek zigorrak ekarri dizkit;  
ez dauka, ordea, penik:  
Euskera blii dedilla, eta  
gutzia dago egiñik.

Etsai gaistoak ito nai dute  
euskaldunaren odola;  
sinista-zazu oraindik ere  
penaz beterik nagola.  
Pena da baña seme gaiztoak  
ez zuten maite kalola;  
oraindik ere zutik, ordea,  
Gernika'n gure Arbola.

Euskera Ama gaixua ez da  
iltzen ain erreza izan.  
Bere etxean lotsaz bizi da  
arrotz gaistuaeren gisan;  
pena larri au astuna dezu  
maite dunaren bizitzan.  
Gure Jainkoak ez beza galdu,  
inoiz, bere eskutikan.

«Bizimodu» jarri didazu  
gaurko bertso-gai bezela,  
eta badakit bide ortatik  
txit apartatu naizela.  
Sentimentuak ortaratu nau;  
ezin ziteken bestela;  
nere Ama dan izkuntz aurrean,  
erantzi nai det *txapela*.

Urteak ere aurrera, eta  
nekatua det burua,  
bein ontaraiño ezker oia da  
etorri oso juxtua.  
Gaizki esanak barkatu, beintzat.  
Agur, Euzkadi osua:  
nai ba'dezute, salbatuko da  
gure Euskera gaixua.

Esan dugu bat-baterako bertsolaria zela *Txapel*; ez zen bertsoak paperetan eskribitzen dituzten oietakoa. Iru edo lau bertso-paper besterik ez zituen idatzi. Orregatik, bere bertso guztiak aidean galduak dira. Jende asko izango da oraindik, Gipuzkoa'ko bazterretan, errietako jaietan, eztaietan, ferietan, eta edozein lekutan eta edozein unean, millaka bota zituen bertsoetatik ateraldi zorrotz bat baiño geiago gogoratzen duena; baiña, non aurkitu jende ori?

Ola kantatutako bertso oiek biltzea zail baldin ba'da ere, badugu, paperean idatzia, *Txapel*'ek bat-batean abestutako bertso sail bat, Donosti'n, 1936'gnaren. Ilbeltz'ean. «*Donosti'ko Il'gn. Bertsolari-Egunean*». Andoain'go Etxeberria'rekin kantatu zuena. Leiaketa artan gai-emaille zen *Basarri*'k «errotari» egin zuen Etxeberria, eta «ikazkin» gure *Txapel*.

Komeri utsezkoak zirela bertso aiek-eta, mingarri zorrotz zuen —kezkarik gabe— *Txapel*'ek eztena. Bat-bateko bertsolari bateri orrela komeni zaiola-ta, bat-bateko

bertso aiek azaltzen ditugu gaur *Txapel*'en era edo estiloaren adi-garri. «*Bertsolari-guduak*» deritzan liburuan argitaratu ziren. Baiña, liburu presaka osatua izan zelako, uts askorekin argitaratu zen. Ulerkaintzak ditu bertso bat baiño geiago; orregatik, itz bat edo beste aldatu egin ditugu, ulertzerrezago gerta ditezten.



«*Txapel*»'ek maiz soñu erabillita

## ZER DIZDITZEN?

Zer illunik oiuka,  
adiskide, dozu?  
Zador uts da bizia;  
zuk «Gora!» diñozu.

Ostoz igar zugatza,  
or zarra. Ikusten?  
Eder zan atzo bizi,  
gaur ikus il-urren.

Naiz zaar ta naiz gazte,  
zer dau iruditzen?  
Eusko-seme jatorra,  
gau-argi dizditzen.

Zer dañostazu, ortik,  
zer diran izanak?  
Joanez joakuzan  
egun its joanak.

Gauzak ez dira ezer,  
ames soingabeak...  
Iratzarrik askotan  
buruan erneak.

Amesak, zer dizditzen?  
Ezaren korroka.  
Argiak mintzen begia,  
azken itza orroka.

IGOTZ



**ALBIZU'TAR GILLERMO**  
(Berro-beiti, Naparroa)

Eguzki begi-bakar aundia,  
danok ikusten gaituna,  
urruti egon edo urbillen,  
orixe gure kutuna.  
Argia eta berotasuna,  
biak batean dituna;  
bata atsaren surpertzaillea,  
besteak uxa illuna.  
Alguztidunak maitasunaren  
sinalez utzi diguna.

Auxen sinistu bearra degu:  
geren izate guziko  
eguzkirikan ez baldin ba'ltiz,  
ez giñakela biziko.  
Otza dagoen lurrean ezer  
ez bailitzake aziko,  
yakiña dago, au berotutzen  
ez dala inor asiko;  
izadiaren ardatz zuzena  
bera da lendabiziko.

Ogeieta lau orduz, eguna;  
eta urtero, udara  
oparotsua ekartzen digu  
garai ontako bolara.  
Nai duena itzalera yun;  
naidunak artu galdara;  
aske dagona ibil diteke  
bakoitza bere galgara;  
nor-nairentzat pozgarrigo da  
negarra baiño algara.

Laiño ekaiztsu beltzen ondoren,  
yuan zan negu gordiña  
yaten gabeen gosea eta  
berorik ezan samiña.  
Zanpatzen degun oiñ azpikoa  
denontzako da egiña,  
sasoi onetan maiz ikusten da  
goian bairidire urdiña,  
eskeintzen dula guztiontzako  
bere eskubide berdiña.

Gerok ezertxo eskatu ezta  
olako aberastasuna  
ta, aldi ontako egun luzeak  
dadukaten ontasuna.  
Guri komeni zaiguna, au da:  
beti-zainduz osasuna,  
bizi-bidea errezutzeko  
egitziñik alkartasuna:  
**«Ezagutzea sort-erriaren  
legezko askatasuna».**

## Zubi-aurrean bizi naiz

UXOLA  
1983 Agorrilla

Zubi-aurrean bizi naiz, eta  
ibaia dizut alboan;  
arriturikan begira nago,  
leio-kristalen ondoan,  
nolaz euria dator goitatiek  
bizi ta era zoroan;  
suillaka, esan dezaket; baiña,  
parrastaz dator lañoan.

Goizeko zortziterdiak dira  
orla begira nagola;  
odei beltz-beltzak ortze aldean,  
bean ibaiak uxola,  
gaiztakeria badakarkite  
berari gutxi ajola,  
ondamendia eta kaltea  
barratuko du inola.

Goiko lañotan otsa badabil,  
orroa da ibaikoa,  
zubi ertzetan enbor lodiak  
zarat aundiz zartakoa;  
ur arreetan ortze dijoaz  
emanikan beltz tantoa  
zugaitz, sastraka, bidoi, upela,  
bai, zerria ta olloa.

Atertu gabe, gañez egin du  
etxe aurreko zubiak,  
utzirik geldi ezin pasarik  
automobil ta jendiak;  
urak irten da barratzen dira  
arturik gure kaliak  
lokatzdun uraz beterik dendak,  
eliz ta etxe-azpiak.

Paper antzera badaramaki  
ortxen zan automobilla,  
beste kaletik zekarkinakin  
jo ta egiñaz opilla;  
egin zaratak itzali dizu  
enborrak egin naspilla,  
denda batean sartu danean  
kristal bat egiñaz milla.

Ezin ditezke guztiak esan,  
bertso-sailla da laburra;  
erri guztia dardaraz dago,  
badu kezka ta bildurra;  
ez ote gaitun gu eramango  
emanaz eri makurra,  
baztar guztitan kolpeka beti,  
itxasoruntz, utziz lurra.


Trumoi ta trumoi, dunba ta dunba,  
ibaiak, barriz, orroa  
onen aurrean kokiltzen dira  
ustetsua ta arroa;  
nere aldetik beldurrez nago,  
elbarri dizut gogoa  
inolaz ere ez bait det maite  
ur-jabe dan itxaso...

Eguerdian, ordubatean,  
geldi da ibaia igotzez,  
ta galtzen asi kezka-zalantzak  
lasaiturikan zerbaitez.  
Binbitartean, ordu lakatzak  
ongi ikus dezutenez.  
Ordun, eriotz izan ziranak  
begoz Jainko begirunez.



Tolosa'n ere, atertu gabe, gañez egin du etxe aurreko zubiak

Esaera bat zarra ta beti  
berria dan bezin gazte:  
**«Itxuen errin begi-bakarra  
izaten dala alkate».**  
Gu, birekin gabiltza; baiña,  
ain indar gutxi daukate;  
naiz esna egon, argirik gabe  
ez degu ikusten bate;  
gogoa ordea erne, eguzkiak  
printzarik duan bitarte.



# GAUZA BITXIAK




## KANKAILLU BI: GUDARIA ETA NESKATXA

Orra or Hanburgo'ko mutil bat, gudari-jantzian. Begira zeinen luzea den: 2'15 metrokoa. Albokoa baiño, ia bi aldiz luzeagoa.

Eskerrak, Hitler'en garaian aren gudari guztiak ez ziren ain aundiak; bestela...

Baiña ez da bakakarra, ta ez ka luzeena ere. Beste bat luzeagoa ta emakumea, gaiñera. Nungoa dela uste duzue? Txina'ko Hunan lurraldekoa da, 2'47 metroko luzera ta guzti. Amazazpi urte zituelarik, berealako gaitzak eraman du beste mundura.

Txinarrak, ainbeste edo ain ugari izateaz gaiñera, denak orren luzeak ba'lira...



## EMAKUME ASKATASUNA NON?

Emakume guztiak etxetik kanpora atera nai dituzte «feminista» direlakoek. Eta bein etxetik kanpora ateraz gero, emakumearen askatasuna lortu dutela esanen dute, gaixo aiek zama aundiago ta astunago eraman bear beren gain.

Orra or Ingalaterra'ko Agintari Nagusi egiñik emakume bat, Margaret Thatcher, «Burdinezko Andrea» deitua, etxetik kanpora, milla eratako lan eta aferetan buru-belarri sarturik.

Baiña zer? Azkenean, bere burua baretzeko ta pakea lortzeko, bere etxea apaintzen bear du... Eta ez bein bakarrik; etxeko lanetan bakarrik aurkitzen du bere askatasuna.

«Nik bereala ikusten dut ama aserre edo kezka-tia dagoela —esaten digu Karol'ek, aren alabak—; ama, etxera etorri-ta bat-batean ormetako paperak aldatzen asten da».

# Berrogei apaiz, Jesus'en lur

Gipuzkoa'ko Gotzaitegiak antolatutako, ibillaldi berezi bat, benetako peregrinazio bat egin dugu berrogei apaizek Israel ikustera. Ez al zen bidezkoa, apaizok gure Mai-xua nun bizi ta ibilli izan zen ikusiz ezagutzea?

Frantzi'ko idazle ezaguna den Renan'en itzak datozkit burura: «Israek edo Palestina ikusten ibiltzea, bosgarren Ebanjelio bat irakurtzea bezala da».

Guretzat beintzat, berrogeiko talde onentzat ala izan da. Zergatik eta nola? Lau Ebanjelioek diotena irakurri ta ausnartuz batera, gertakizunen tokiak geuron begiz ikus-teak, urbillagotik bizi-erazi bai-dizkigu.

Antziñatik zuen Israel izena, baiña erromatarrek Palestina deitzen zioten nagusiki. Bi izenak dira orain oso ere oso erabiliak, esan-nai ezberdiña dutelarik ere. Kristauontzat, berriz, LUR SANTUAK esatea da barnetik jaiotzen zai-guna.

Begiratu labor bat ematean, ikusitako toki asko aipatu gabe utzi bearra daukagu. Nagusienak esateko, Nazaret aipatuko dut le-



Jordan'go uretan, gure Bataioa biotzez berritzen. Eta Senegal'dik joan ziren 40 lagun beltz-beltzak ere. (GAZTANAGA argazk.).

nengo, urte luzez an bizi izan zelako esaten bai-zioten «Nazaretarra» Jesus'i. Uri alaiak ta bizilagun alaiak ageri dira Nazaret'en. Alakoxe argi ta alaiak izango ziren Maria neskata ta Jesus mutil gaztea ere. Eliza guztiz bikaiñaren

azpian dago artzulo bat, Maria Birjiña'gan Jaungoikoa gizon egin zanekoa. Giza-biotzari zirrara bizia sortarazten dion toki bitxia da.

Aipa dezagun Genesaret aintzira, «Jesus'en aintzira» deitua, ainbeste bider ibilli bai-zen inguru artan bai urez eta bai legorrez.

Eta Kafarnaun, Jesus'ek bere bizilekutzat artu zuena. Antxe Pedro'ren etxea omen denaren ondakiñak ikustean, gogorakizun ugari sortzen dira. Ementxe etxeratuko zen Jesus askotan, ementxe sendatuko zuen Pedro'ren amagiarreba; ementxe sendatuko zuen, noski, teillatutik beera sartu zuten gizon elbarria ta pekatuak barkatu z zkiona. Ementxe elkar-izketa ugari Jesus'en eta Apostoluen artean... Eta sinagoga bikaiñaren ondarrak ikustean, Jesus'ek ogi bizia eskeiñi zieneko mintzaldi sakona ta Pedro'ren erantzuna: «Jauna, betiko biziaren itzak daukazuzu. Zu utzita, norengana joango gera?».

Jordan ibaiak ere gogorakizun ugari sortzen ditu sinistunen barnean. Toki bero, landaretsu ta eze artan, Joan Bataiatzaillearen laztasuna bururatzen zaio kristauari. Baiña Jesus'en Bataioa da go-goangarriena Jordan'go uretan. Antxe ikusi genuen Inglatera'ko «anglikano» bat, mutil gaztea, gurasoek lagunduta, bataioa artzen, abesti ta otoitz-artean.

## Peru Txiki'ren ateraldiak

Peru Txiki'k galdetzen dio mutiko bateri:

—Zer da jorнала?

Eta mutikoak:

—Nik ez dakit.

Peru'k ordun:



—Ez dakizula? Jorнала da... Begira, zure aita lanean ari da aste guzian, ez da?

—Bai, jauna.

—Ordun, dio Peru'k, larunbatean zer eramaten du etxera?

—Mozkorra galanta, erantzun dio mutikoak.

\* \* \*

—Bai al dakizu, galdetzen dio Peru Txiki'k mutiko bateri, zenbat dira bi ta bi?

—Bai, jauna.

—Esan, ba; zenbat dira?

—Lau.

—Ongi!, esaten dio Peru'k. Eta gero: ordun, zuk lau duro dituzu, eta zure aitari bi duro ematen ba'dizkiozu, zenbat geldituko zaizkizu?

—Lau.

—Nola lau? Zuk ez dakizu kontatzen, mutilla!

—Bai; kontatu, badakit kontatzen; baña nik ez diot duro bate-rik ematen, ezta nere aitari ere!

Eta nola ez gogoratu bakoitzak, aspaldi artu genuen Bataioaz? Gu ere Goiko Aitaren seme egiñak bataioan... Jesus'en itza entzun eta jarraituko genuela, gu ere itz-emanak bataioan eta Apaizgintza artzean... Uretan sartutik eta Jordan'go ur epel bizia buru gaiñetik beera jarioka genuela, 40 apaizok ere bana-banaka gure Bataioa gogoratu ta biotzez berritzen... Eta ez gu bakarrik: baita Senegal'dik joan ziren 40 lagun beltz-beltzak ere, sinismenari esker animaz zuri-zuri zeudenak.

Eta Jerusalem... Au bai uri santua benetan! Lau kilometro luzeko arresi bikaiñez inguraturik dago Jerusalem zaarra. Eta barruan daude eliza ederretan, Jesus'en gertakizunik nagusienak. Mundu osoan banaturiko judutarrek, irrika biziz amesten dute Jerusalem ikustera irixtea. Eta kristauok ere uririk maitagarriena ta agurgarriena, Jerusalem dugu bertan il eta piztu zelako Jesus. Eta kristauontzat, zeruko Jerusalem berriaren oroigarria dugu.

Eta beren ametsetako Eliza Nagusia zegoeneko tokian, mahomatarren mezkita bi daude. Au bai mingarri dela israeldarrentzat! Baiña ezin ezer aldatu. Eliza Nagusia zegoeneko enparantza zabalari eusten dion ormatzar aundi bat dago zutik. Eta judutarrak ormatzar onen arri aundien ondora ur-bildurik, antxe aritzen dira beren otoitzean, negarrez eta gorputz-dardaraz lagunguta. Ia bi milla urte daramazkite ormatzar orren ondoan Yabe'ri deika, berriz eraiki dezala Israel eta bidal dezala Mesias salbatzaillea. Orregatik deitzen diote «Intziri-arresia».

Zenbat eta zenbat gogorakizun bikain dituen Jerusalem'go edozein bazterrek! Eliza Nagusia izan zeneko tokia batetik: antxe ibiltzen bai-zen Jesus otoitzean, jendeari irakasten, mintzaldi ederrak egiten, gaixoak sendatzen eta araxe sartu zen Erramu egunean aundikiro. Judutarren nagusiek eta Pilatos erromatarrek eriotzera galdu zuteneko tokia... gurutze-zatia eramanen joan zenekoa... Gurutzean il zenekoa... Itzik gabe, ixiltasunean ausnartzeko tokia da Jesus zenekoa, illobiratu ta piztu zeneko eliza bikain ura.

Eta Jesus'ek Azken-Afaria egin, Eukaristia ta Apaizgintza sortu zitueneke tokia ere antxe daukagu. Ez dago, noski, orduan bezala, baiña inguru artan izan ziren gertakizun aundiak. Baita Espiritu Santuaren etorrera ere... Nork esan itzez, toki ta giro aietan zer sentitzen duen apaizaren biotzak?

«Jerusalem, Jerusalem... zenbat aldiz bildu nai izan ditudan Nik zure seme-alabak...». Misterioz betetako uri arrigarria da gaur ere.

Kristauarentzat gaur ere negargarri da Jerusalem'go zenbait gauza aztertzea. Kristauentzat, judutarrentzat eta mahomatarrentzat, uri santu ta agurgarria da Jerusalem, eta iru erlijio-taldeok Jaungoiko bakarra gurtzen dute; baiña bakoitzak bere erara ta elkarrekin ezin dira ongi uztartu.

Mahomatarrek an daukate, geiagoren artean, mezkita bi aundiak, ederrak eta dotoreak. Zenbait egunetan, ostiraletan bereziki, jende asko ibiltzen da ikusten, baiña baita otoitzean ere. Zeiñen otza gertatzen den aien otoitza, elkartasunik gabekoa bai-da.

Judutarrek, Jainkoaren Itza entzuteko ta otoitz egiteko, sinagoga berri ta bikaiñak daukate. Auen otoitzak ere elkartasunik gabeak dira. Baiña judutar sinistunek, Moises'en itzak jarraituz Yabe aundia sinisten dutenek, ez daukate benetako elizarik. Auentzat eliza bakarra, Jerusalem'go Eliza Nagusia zen: an biltzen ziren otoitz egiteko, abesteko, Jainkoaren itza entzuteko, eta... opariak eskeintzeko apaizen bidez. Baiña gaur judutarrek ez daukate apaizgorik eta ez oparirik. Erlijio otz eta ardatzik gabea daukate, apaizik ez daukatelako.



Kafarnaun'go sinagogaren ondakiñak

## Israel berria

Munduan barrena banaturik ziren judutarrak berriz Israel aldera

joaten ari dira azkeneko eun urte auetan. Eta 1948'gn. urteaz gero-koan, nazio edo estatu egiñik dira. Lurralde aundia ez daukate, gerra gogorak jokatu, zati batzuk kendu ba'dizkiete ere bai Jordania'ri, bai Siria ta bai Libano'ri. Bizilagunez ere ez dira asko: 3.100.000 dira judutarrak eta auekin batera bizi dira millaka arabiar ere; esate baterako, Jerusalem'en bertan 75.000 izango dira arabiarrrak.

Ikastetxeak, gaixotegiak, museoak, sinagogak..., arrigarriko eraikintza aundiak egin dituzte israeldarrek Jerusalem berrian eta beste errietan. Asko aurreratu dute irakaskintza. Lurgintza ta nekazaritza aurreratzen ere lan izugarriak egin dituzte: aintzirak legortu, ibaia bidez aldatu, basamortu legorrak soro ta baratz bihurtza iritxi bai-dira. Inguru-bira osoan arabiar etsaiak daukatenez, gudarostea ere ongi orniturik eta bereziki gertuturik daukate, gizonezkoekin batera emakumeak ere gudar bihurtuta.



Izkuntzari dagokionez ere naiko mirari aundia egin dute. Bi milla urte badira eberkera, izkuntza zaarra galdurik eta illik zeukatela. Liburu Santuetan bakarrik zeukaten, eta iñork ez zuen itz egiten. Eta orain piztu ta eraberritu egin dute eberkera. Munduko edozein errititik Israel'a bizitzera doan judutarrak, lana izango ba'du, eberkera ikasi bear, ortan Estaduak laguntza aundiak emanda. Nola berritu duten? Ez noski, itz berri guztiak izkuntza arrotzetatik artuta; lenengo beintzat, eberkera zaarreko sustraietara jo dute ta andik ateratzen dituzte itz berriak; egu-nero atera ere batzuk beren egunkarrietan ikus dezakegunez.

Erri-maitasunean eta izkuntza-zaletasunean oiñarriturik jokaten dute, etorkizun zaillari aurpegi emateko. Erri arrigarria da Israel.



# • ERRIZ - ERRI •

## Betelu

### PAKO URRIZALKI, EUSKALDUN JATOR BAT

Pako Urrizalki il zaigu. Betelu'ko gizon jatorra. Beti umore onekoa; mundu guztiaren laguna. Minbiz il zaigu.

Askotan ikusi izan det gure Pako ume-tartean, baiñan beti ume oiei zerbait erakusten; Pako'k erakutsi bait die Betelu'ko umei eta gazteei txistua jotzen, eta aspaldiko kantu zarrak abesten. Eta baita dantzak ere.

Betelu'n galdurik zegoan ingurutxo; Pako'k berri zuan atzera.

Beste gauza bat ere zearo galdurik zegoan Betelu'ko erri ontan: «aurorak» edo egunsenti-abestiak. Pako'k piztu zigun berriro oitura eder ori. Berak prestatu zuan ortarako mutil gazte talde bikain bat.

Idatzi ere oso ederki idazten zuan Pako'k. Aldizkari ontan bertan, bein baño geiagotan, irakurri dituzute bere idazlan atsegiñak.

Oso gizon ezaguna zan Pako, eta ezagutzen gendunok guztiok oso maite genduana.

Zuretzat, Pako, mundu ontatik bestera, otoitz batekin batera, nere muxurik aundiena.

EVA VARELA LATIEGI



Pako Urrizalki beteluarra gazte-tartean, beti oiei zerbait erakusten

## Galdakano

### AZKEN-ALDIKO UDOL ONDO-REAK

Udol izugarri asko ikusi doguz geure urte askoetan, baiña, udol oiek esku-alde bat, ibai aundiren

inguru batzuk izan dira eta, nai-ta kalte aundiak izango ziran euskualde oietan egindakoak, zorionez, iñoizbere ez orain Euskal erri egindakoak bezalakoak.

Oso kalte aundiak izan dira Laburdi'rik geienan egin dituzanak. Naparra'ko Bidaso-alde zoragarrian egin dituzanak. Zetan esan

bere ez Gipuzkoa'rik geienan egindakoak, baiña, Araba'ren bealdean, Laudio ta beren inguruetan eta batez bere Bizkai geienan egin dituzan trizkantza eta, txarrena eriotzak, ez dauke asierarik eta ainbat txarrago azkenik.

Idazlantxo au idatzi dogunako Bizkai'rik geiena ikusiak gera, udol oiek izan diran erriaktan, jakiña! Bermeo, Gernika, Zornotza (Amorebieta), Lemoa, Galdakano (zetan esan bere ez), Arrigorriaga, Ugao (Miravalles), Etxebarri eta bizkaitarren Uriburu dogun Bilbo'n eta beren inguruetan, baiña, batez bere, uri aundi orren alde zaarrean, antziñako Bilbo'n, udol oiek kalterik geien egin daben alderdi entzutetsuan: saleroste eta ainbeste lantegitxu egon dan alderdian.

«Saleroste eta lantegitxu egon dan», esan dogu; ta alantxe da, bada, Bilbo-zar guztiabertako aterik geienetan aurkitzen zan saleroste ederren bat edo saltoki ta beren lantokitxuren bat... Eta, aurrerantzian, zer? Nork eta zelan jaso inguru lantegitsu ori?

Eta beste ainbeste esan gintzake aipatu doguzan erri ta uriak gaitik bere, ainbat etxe eta landola garrantzizkorik asko, batzuek guztiz eratsita, ondatuta geratu diralako eta, besteren laguntza barik zail izango dabelako barrizketa onuragarri egiten.

Bai-ta egia da Espainia'ko Jaur-laritzak egiñak ditu eskintza batzuk; baiña, Jaur-laritz oien eskintzak orretan geratu dira, askotan, Euskalerrian: eskintzatan.

Badakigu Euzko Araudia daukagun Euzkadi'n, zati onetako Jaur-laritzak, al daben guztia egingo dabena kalte oiek antolatutzen; baiña, noraiño eldu litzake beren txinditza neurtua ainbeste milla milloi bear diran abenderri baten? Irakurle maitiak, baten geiagotan irakutsitan emon bearko dogu, euzkotarrok noraiño eldu litzaken gure adorea ta kemena, ezbeurrean beste batzuetan egin dogunez buruba jasoteko.

Kemendu euzkotarrak! Danon lanakin laster jasoko gera jausi geran basa edo lokaitz ontatik eta, lenagoko bidean jarraitzeko Euskalerrian edo Euzkadi'n onerako.

ALTUNA'tar JOSU



# KIROLAK

## MENDIGOIZALE NAPARRAK PAKISTAN'EN



«Txogori» edo «K-2» mendia, munduko bigarren gaillurra bere 8.611 metrotan

Everest da noski munduko mendirik goituena, baiña onen urrena, goituenetakoa ta zaillenetakoa, Pakistan'en dagoen CHOGORI mendia da, «K-2» deitua.

Napar-talde au 1979'an 8.172 metro dituen Daulaghiri mendi-gaiñera igo zen. Bereala asi zituzten beste igoera bat zaillagoa egiteko gertuketak. Ango baimenak lortu ta emengo diru-laguntzak eskuratu ondoren —ez gutxi kostata— Jorrailla'ren 30'ean eldu ziren Pakistan'a. Aurrez bidalita zituzten 6.000 kilo janari ta tresna ta jantzi ta gaiñerako gauzetan.

Ona emen bederatz laguneko taldea: Gregorio Ariz buru, Mari Abrego, Jose Manuel Casimiro, Jose M.<sup>a</sup> Donazar, Juan M.<sup>a</sup> Egillor, Jesus Moreno,

Jabier Muru, Agustin Setuain eta Xabier Garaioa.

An aietako giroaren erara beren gorputzak oitutzen egon ondoren, 15 eguneko bideari ekin zioten 6.000 kiloak eramanez, 300 lagun zama-eramaille artuta. Eta 4.950 metroko goitasunean pilaltu zituzten eta antxe jarri zuten beren egonleku nagusia: andik jasoko zituzten janari ta gauzak bear zuten neurrian.

Urrengo egonlekua mendian goruntz abiatuta, 5.250 metroko goitasunean; urrengo 6.660 metrokoan eta bestea 7.280 metrokoan. Ekainilla'ren 24'an eldu ziren egonleku nagusira ta mendiko irugarren egonlekua jarri zuteneko, Ekainilla'ren 28'gna. zen.

Jo zuten gorago ta 4'gn. maillara

eldu ziren 7.700 metroko goitasunean, Uztailla'ren 1'ean. Baiña eguraldia zearo txartu zitzaien eta ezin aurrera egin. Mailla artara aixa igotzeko eran gertuturik zeuzkaten bidea ta sokak, baiña geiagorik ezin. Egonleku nagusira jetxi bearra izan zuten, eguraldi obearen zai egotera. Iru aste egin zituzten zai ta zai, baiña eguraldia ondu ez. Azkenean, Uztailla'ren 22'an artu zuten erabakia, naigabe aundiz eta samintasunez, baiña ez zeukaten beste aukerarik: atzera egin bear, bizirik eldu nai ba'zuten beren etxeetara.

Nekeak eta arriskuak izugarri, eragozpenak esan ezin-aala, otzaren otza, toki txikian lagun-taldea estu, beti lagun berdiñak eta beti janari bera... Eta barruko borroka aundia: gaillurra igoko? Eta bidean... Eroriz gero? Arriskatu, bizia jokatzuz? Ala... biziari eutsi beste baterako ere? Igoera zailla, baiña ikuspegi zoragarria. Beste mendi aundiak baiño are ederragoa irudituaie. Ainbeste lan egin, ain ongi neurtu ta gertutu gauzak, bideak egin ain goraiño... eta ala ere ezin zapaldu gaillurra. Zori gaistoa.

Baiña ekintza aundia da napar auek egin dutena. Saiatzea ta zailtasunak oinperatzea da elburua. Eta ortan gauza asko lortu dituzte benetako elkartasunean. Txalo aundiak zor dizkiegu. Ain erosoan eta ain biguin oituta jendeen aldean, mendigoizale talde au bai eredugarria dela gaztediarentzat. Etsi gabe saiatzea, beti gorago igotzea, beti geiagoren billa ibiltzea, ori bai dela gizatasunezko jokabidea. Zorionak, gazteak! Eta urrengoan are geiago.

## «OSASUNA» FUTBOL-TALDEAREN AURKEZPENA

Agorrilla'ren lenengoan egin zuen Naparroa'ko futbol-talde nagusiak bere aurkezpena: 20 laguneko taldea, au da, 20 ostikalari edo futbolista. Oien artetik batzuk berriak eta erakusle edo gertutzaille edo «entrenador» delakoa ere berria: Ivan Brzic, Yugoslabia'koa ain zuzen ere. Cadiz'en ala Huelba'n jaiotako Pepe Alzate naparra joan zaigu-ta.

Bertakotu ta lana sendo egiteko asmoa ekarri du yugoslabiarrak. Eta lenengo egin duena, gure lurraldea eza-gutu: badaki badela zerbait Naparroa ta zerbait geiago izan dela ere badaki, Erreinu izan dela alegia. Eta emen ipar-aldean gauza berezi batzuk oso geureak ditugula ere badaki, batetik izkuntza ta oiturak, eta bestetik iritzi ta amets aundiak ere bai.

Gure izaera ulertzea ez da arritzekoa, datorren erritik datorrenez. Izan ere, Yugoslabia —batzuen pozerako ta beste aserrerrako— erri ez-berdin askoren elkartasuna da ta ez-berdin oiek elkarren begirunean bizitzera bearturik daude.

Baiña orain Brzic onen ardura nagusia, bere lanbidea aurrera ateratzea da: au da, bere lanaren lanez, deportista edo kirolari onak ateratzea. Lur ontako gazteak landu nai ditu, tokian tokiko arrobiari atera nai dio frutua, ona ta ugaria.


Orrela, butbolzaleei lasaitasuna ta poza eman nai dizkie. Futbol-taldeari, berriz, garaipenak eta partidu-irabazte ugariak. Ala izan bedi.

Oraindik ongi ikasi gabeko erderaz mintzatuz, ala esan du: «Nere futbol-

*taldeek beti gertuera ona eraman dute partiduetara...».*

Asiera denez, jarri dezala oiñarri edo zimentu on ori. Eta gure aldetik biotz-biotz, GORA OSASUNA!





## SUMARIO

**1: EUSKALERRIA OÑAZEZ.** Tragedia en Euskalerrria: 366 litros por m.<sup>2</sup> aplastan; sólo el espíritu levantará este País.

**2-3-4: EUSKAL ERRIKO LEIOA.** Ventanal: la catástrofe del agua en Navarra; no a la LOAPA en Madrid; el Papa en Lourdes.

**5: EGUZKIA: alde onak eta txarrak (III).** Perjuicios del sol: Cáncer de piel. MEDIKU ZAAARRA.

**6: EUROPA BAI, BAIÑA NOLAKOA?** Qué Europa queremos? M. GARDE.

**GUTXIK ERABILITAKO IZKUNTZEI BULTZADA.** El Parlamento europeo en favor de las lenguas y culturas minoritarias. «COMUNIDAD EUROPEA», n.º 187.

**7-8-9-10: BERTSOLARIA.** El bertsolari «Txapel», su vida, su producción, su estilo. EGI'TAR BI. Versos de «IGOTZ», «UXOLA», G. ALBIZU.

**11: GAUZA BITXIAK.** La página de curiosidades nos trae chinos y alemanes de altura... Y a la «Dama de Hierro inglés», Sra. Tatcher, subiéndose por las paredes...

**12-13: JESUS'EN LURRALDEAN.** J. GAZTAÑAGA. Por la tierra de Jesús; una peregrinación provechosa: Palestina, problemas; Israel, digna y humana tenacidad; «Tierra Santa», «quinto Evangelio para el cristiano». PERU TXIKI en su rincón.

**14: ERRIZ ERRI.** Por los pueblos. BETELU: Toda la vida de Pako Urrizalki, una lección de vasquismo. EVA VARELA LATIEGI le despide, agradecida, con una oración a un beso de ternura. GALDAKANO: J. ALTUNA: más sobre la catástrofe de las aguas. Y decisión, y unión... Que también otras tormentas han aplastado a nuestro Pueblo, y levantó la cabeza.


**15: KIROLAK: Montañeros navarros en Pakistán.** Victoria moral en el K-2, venciendo al orgullo humano, respetando a la Naturaleza en su reino absoluto, a más de los 8.000 m.

**OSASUNA:** El nuevo entrenador, Brzik, yugoslavo, se sabe la Ordenanza, «Art. 1.º: Conocerás al personal». Ongi etorri!

**16: SAI AUNDIA IRUÑA'N.** Un buitre de Abodi en la ciudad.

**GURE IGERILARIAK.** Los nadadores navarros trajeron Oro y Plata de Sevilla.

## SAI EDO PUTRE AUNDIA IRUÑA'N



Zaraitzu'ko Abodi bortuetan aurkitu zuten putre edo saia. Kabitik eroria edo, gaztegia da berez oianean bizitzeko. Iruña'ra ekarri zuten, leku egokitarara igorri baño lenago sendotzeko. (MENA argazk.)

Sai edo putre bat, oso gaztea, Zaraitzu'ko Abodi mendian aurkitu zuten. Gaztea, baiña asko azia, metro ta erdi bai-ziren luzean sai onen egoak.

Kabitik erori egingo zen ziur aski, batzuetan gertatzen den bezala. Eta oianean galduko zen eta gosearen gosez aulduko zen eta iltzera elduko, onelakoetan gertatu oi den bezala. Abodi'ko sai gaztea are naikoa auldurik zegoen, GAR taldeko «guardi zibil» deituek aurkitu zutenean.

Aldundi'ko ordezkariak artu ta bear bezala zaintzera joan bitartean, txaal-aragia eman ez euki zuten.

«Sai arrea» deritzaion motakoa da gazte au. Onelakoak ugari samar dira Naparroa'n; batez ere, Naparroa'ko Aunamendietan dira ugarienik eta bada saien lagundi bat ugaria. Oianean dute berentzat inguru-giro egokiena: antxe aurkitzen dute janaria, ildako abereak bereziki. Onela, adibidez, «bortuetan» il diren beorrak, beiak, ardiak eta gainera-koak: erraza da abere oietakoak gaitzez, naiz tximixtaz naiz pikar edo arkaitzetan amilduta iltzea, egazti arrapakarien pozerako.

Erronkari'n eta Zaraitzu'n badira mendi-tontor batzuk, «Sai-mendi» ta «Sai-tontor» edo antzera deituak, oietan sai ugari direlako.

Aldi batean oso ugari ziren Naparroa'n saiak eta antzeko egazti arrapakariak, baiña galdu ziren gerora. Orain berriz ere ugaritzen asi dira ta sarritan ikus ditzakegu goietan beren egaldi zabal arrigarrian.

Zorionez, gero-ta obeto daki jendeak, alde askotatik oso mesedegarri direla saiak eta antzekoak: zomorro kaltegarriak eta ildako abereak jatean, garbitu egiten bai-dute lurra, guztien onerako garbitu ere.

Orregatik, garai batean baiño begirune geiagoz zaintzen dituzte naparrek. Onela, badira toki jakin batzuk, Arbaiun'go lurraldea ta beste batzuk, Elo-mendi bezala, eiza debekatuz eta beste neurri batzuen bidez, era berezian zainduak.

## GURE IGERILARIAK

Ignazio urtean España'ko Igerilarien Txapelketa, Iruña'n jokatu zuten. Aurten, berriz, Sevilla'n jokatu dute. Eta ignazioen maillara ez dira eldu, ez antolaketaz, ez jokalarien arteko giroan eta ez jokalarien markaz ere. Igeri-tokia berri-berria zen Iruña'n eta oso egokia, ta jendearen erantzuna ta txaloak ere bikaiñak. Ikustirratia edo TVE delakoak ere aurten baiño serbitzu ohea egin zuen ignaz Iruña'tik. Onela esan dute beintzat, Naparroa'tik Sevilla'ra joan diren amar naparrek.

Garaipe-sariak, berriz, ignaz baiño domiña edo medalla bat gutxiago atara ditu Naparroa'ko taldeak. Urrezko bi domiña ta zillarrezko bat ekarri ditu Aldabe'k. Beste geiagotan bezala, zillarrezkoa atara du Izaskun Saez'ek. Eta ignaz burdiñori edo brontzekoa lortu zuen Ana Pardo'k ezin izan du.